

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

117/2018 Foru Agindua, uztailaren 9koa, sortu eta arautzen duena Arabako Lurralde Historikoaren eremuan Gizarte Bazterketa eta Inklusioa Baloratzeko Zerbitzuaren Aholku Batzorde Teknikoa

Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak, bere lurralde eta eskumen eremuaren barruan, Arabako Lurralde Historikoaren eremuan gizarte bazterketako egoera aitortzeko araudia onetsi zuen otsailaren 20ko 8/2018 Foru Dekretuaren bidez. Uztailaren 16ko 385/2013 Dekretua, gizarte bazterketa baloratzeko tresna onetsi zuena, garatzeko eman zen foru dekretu hori. Esandako tresnaren helburua zen gizarte zerbitzuen esku-hartze irizpideen homogeneotasuna bermatzea, balorazio eta diagnosi tresna tekniko komunak aplikatzean.

8/2018 Foru Dekretuaren 22. artikuluan jasotzen dira Gizarte Bazterketa eta Inklusioa Baloratzeko Zerbitzuaren Aholku Batzorde Teknikoaren eginkizunak, eta adierazten da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen barruan eratu beharko dela, eta foru agindu bidez arautu.

Bere gain dituen eginkizun orokorrak nahiz espezifikokoak betetzean kalitate handiagoa lortzeko helburuaz, eta haren barneko antolamenduaren hobekuntza bat dela iritzita, proposatzen da erabakiak hartzeko azterketa, eztabaida eta laguntzarako kide anitzeko aholku organo bat sortzea, irizpideen sakabanaketa ekiditeko eta ahalik eta zorrotasun eta fidagarritasun handiena bermatzeko erabakiak hartzean eta haren esku-hartze eremuan hartzen diren neurrietan.

Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearenak, 40.12 artikuluan ahalmena ematen die foru diputatuei Foru Gobernu Kontseiluak ezarritako zuzentarauak betearazteko, beren eginkizun esparru materialean erregelamenduzko xedapenak gauzatu daitezzen begiratuz. Artikulu horretan xedatutakoa kon-tuan izanik eta, hortaz, beharrezkoa denez aholku batzorde teknikoaren eratzeara eta haren osaera, lehendakaritza, iraunaldia eta funtzionamendu arauak ezartzea, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuari dagokio foru agindu hau ematea.

Foru agindu hau izapidetzean, 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, jasotako araupetze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 3. artikuluan jasota baitaude. Foru dekretu horrek hauexek onesten ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Horrela, behar adina justifikatu da proportziozko araudi bat, zeren eta, batzordea eratzeara gainera, haren antolaketa araubidea, osaera eta funtzionamendua arautu besterik ez baitu egiten.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko delako eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, haren edukia antolamenduari buruzkoa soilik denez gero, posible da jendaurrean jartzeko izapidea alde batera uztea. Edonola ere, onartu eta berehala ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari gagozkiola, proposatutako arautze horrek, duen izaera dela-eta, ez dakarkie herritarrei ez administrazio karga osagarrikerik ez premiagabekorik, ez baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Azkenik, adierazi beharra dago foru agindu honen tramitazioa otsailaren 18ko 4/2005 Legean (Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea) xedatutakoarekin bat etorri egin dela.

Azaldutakoa ikusirik,

EBAZTEN DUT

1. artikulua. Arabako Lurralde Historikoan Gizarte Bazterketa eta Inklusioa Baloratzeko Zerbitzuaren Aholku Batzorde Teknikoa sortzea

Foru agindu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan Gizarte Bazterketa eta Inklusioa Baloratzeko Zerbitzuaren Aholku Batzorde Teknikoa sortzea, eta horren antolamendua, osaera eta funtzionamendu araubidea ezartzea.

2. artikulua. Izaera eta atxikipena

Gizarte Bazterketa eta Inklusioa Baloratzeko Zerbitzuaren Aholku Batzorde Teknikoa (hemen-dik aurrera, Aholku Batzorde Teknikoa) kide anitzeko aholku organo bat da, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gizarte Esku-hartzeko Arloari atxikia eta diziplina anitzeko teknikari gaituek osatua, zeinaren helburua baita irizpideen sakabanaketa ekiditea eta ahalik eta zorroztasun eta fidagarritasun handiena bermatzea erabakiak hartzean eta gizarte bazterketa edo inklusioaren arloan hartzen diren neurrietan.

3. artikulua. Osaera

1. Honako hauek osatuko dute Aholku Batzorde Teknikoa:

a) Lehendakaria: Gizarte Esku-hartzeko Arloaren zuzendariorde teknikoa den pertsonak edukiko du kargu hau.

Absentzia, gaixotasuna, aldi baterako ezintasuna, abstentzioa edo errekusazioa gertatuz gero, berak izendatzen duenak ordeztuko du.

b) Hiru batzordekide. Hauek izango dira:

– Informazioko eta Gizarte Arretako Bulegoaren arduraduna. Absentzia, gaixotasuna, aldi baterako ezintasuna, abstentzioa edo errekusazioa gertatuz gero, Gizarte Esku-hartzeko Arloko koordinatzaile postua daukanak ordeztuko du.

– Arloko programen koordinatzaile postua daukan pertsona. Absentzia, gaixotasuna, aldi baterako ezintasuna, abstentzioa edo errekusazioa gertatuz gero, batzordeak berak erabakitzen duen Gizarte Esku-hartzeko Arloko pertsonak ordeztuko du.

– Gizarte Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuko gizarte langilea. Absentzia, gaixotasuna, aldi baterako ezintasuna, abstentzioa edo errekusazioa gertatuz gero, Gizarte Bazterketa Baloratzeko eta Diagnostikatzeko Zerbitzuko beste gizarte langile batek ordeztuko du.

2. Idazkari moduan, batzordeko kideetarik bakoitza arituko da, txandaka.

3. Txostengile moduan, hitzarekin baina botorik gabe, Aholku Batzorde Teknikoak aztertu beharreko kasuak planteatzen dituzten arloetako profesionalek jardungo dute, zeinek, zuzenean, bidezkoak diren zirkunstantzia bereziak azalduko baitizkiote hari.

4. Izendapen eskusibokoak ez diren batzorde teknikoko kideei dagokienez, ahaleginak egingo dira gizonen eta emakumeen presentzia orekatua sustatzeko, betiere trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia dutelarik, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legean (emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea) xedatutakoarekin bat etorri.

4. artikulua. Eginkizunak

Aholku Batzorde Teknikoaren eginkizun nagusia da esku hartzea (azterketa, eztabaida eta, hala badagokio, ebazpen proposamena eta onespena direla medio, zerbitzuari dagozkion

gaitan) bereziki korapilatsuak edo gatazkatsuak izanik profesional bat baino gehiagoren parte-hartzea behar duten gaitan, esku hartzeko irizpideak bateratzeko eta planteatutako auziei egokiena jotzen den erantzuna emateko helburuaz.

Bereziki, Aholku Batzorde Teknikoaren eginkizunak dira otsailaren 20ko 8/2018 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita Arabako Lurralde Historikoaren eremuan gizarte bazterketako egoera aitortzeko araudia, 22. artikuluan aurreikusten dituenak, eta zehazkiago honako hauek:

a) Gizarte bazterketaren diagnostikoak edo arreta plan pertsonalizatuak direla eta Zerbitzuko profesionalen artean sortzen diren gatazkak ebaztea.

b) Gizarte bazterketaren diagnostikoak direla eta bigarren mailako arretako zerbitzuaren eta lehen mailako arretako zerbitzuen artean gertatzen diren desadostasunak aztertzea.

c) Gizarteratzeko egoitza zerbitzuak eta egoitzaz bestelako zentroak erabiltzeko eskaerak baloratzea, arrisku inguruabarrek gatazka egoerak ekar litzaketenean.

d) Gizarteratzeko egoitza zerbitzuak eta egoitzaz bestelako zentroak erabiltzeko eskaerak baloratzea, ezohiko inguruabarrak direla eta zalantzak sortzen direnean pertsonarentzat zer zentro den egokiena erabakitzean.

e) Pertsona erabiltzaileak gizarteratzeko prozesuak gainikustean sortzen diren auziak aztertzea eta baloratzea, erreferentziako profesionalaren ustez Batzordera bideratu behar direnean, jakinaren gainean egon dadin, kasua azter dezan eta, behar bada, erabakia hartzeko prozesua bultzatzea dezan proposamen bat eginez.

f) Betekizun guztiak betetzen ez dituzten pertsonen gizarte bazterketa baloratzea ekar lezaketenen ezohiko inguruabarrak baloratzea.

g) Gizarte bazterketa baloratzen duen ebazpen baten indarraldia amaitu aurretik gizarte bazterketaren beste balorazio bat egiteko kontuan har litezkeen ezohiko inguruabarrak baloratzea.

h) Gizarte bazterketa baloratzeko eskaera batean atzera egiten denetik edo eskubideari uko egiten zaionetik sei hilabete pasatu aurretik gizarte bazterketaren beste balorazio bat egiteko kontuan har litezkeen ezohiko inguruabarrak baloratzea.

i) Pertsona baten ustezko gizarte bazterketa presaz baloratu behar denez aztertzea.

j) Agintzen zaizkion gainerako lan eta egiteko guztiak.

5. artikulua. Aholku Batzorde Teknikoko kideen eskubideak eta eginbeharrak

1. Aholku Batzorde Teknikoko kide bakoitzak ondoko eskubide hauek ditu:

a) Hitzaz parte hartzea, botoa emateko eskubidea erabiltzea eta boto partikularra ematea Aholku Batzorde Teknikoaren bilkuretan, bai eta botoaren esangura eta haren arrazoiak azaltzea ere.

b) Norberari emandako egitekoak betetzeko behar den informazioa lortzea. Aholku Batzorde Teknikoaren ohiz kanpoko bilkurarako deia egin dadila eskatzea.

c) Proposamenak eta iradokizunak aurkeztea aztergaien zerrendan sartzeko, bai eta erabakiak hartzeko edo gai jakin bat aztertzeko ere.

d) Bilkuretarako deiaren eta aztergai zerrendaren berri izatea nahiko denbora lehenago, eta bere esku edukitzea haietan agertzen diren gaien inguruko dokumentuak eta informazioa, baita aurreko bilkuraren akta ere.

2. Aholku Batzorde Teknikoko kide bakoitzak ondoko eginbeharrak ditu:

a) Aholku Batzorde Teknikoaren bilkuretara joatea.

b) Bere esku dituen dokumentu, eduki, deliberazio eta informazioez behar den diskrezioaz eta erabateko isilpekotasunez jokatzeko.

6. artikulua. Funtzionamendua

1. Aholku Batzorde Teknikoa aztertu beharreko gaiak daudenean bilduko da, lehendakariaren ekimenez edo bi batzordekideek hala eskaturik.

2. Deiak lehendakariak egingo ditu, posta elektronikoz, eta gutxienez bilkura baino 48 ordu lehenago. Aztergaien zerrenda, deia egin baino lehenago egindako eskaerak kontuan hartuz egingo da.

3. Ez da onartuko aztergaien zerrendan jasota ez dagoen inolako proposamenik eztabaidatzea, bilkuran batzordeko kide gehienen baiezko botoekin hala erabaki ezean.

7. artikulua. Bilkura eratzeko eta erabakiak hartzeko quoruma

1. Batzordearen bilkurak balio osoz eratuta egongo dira bertaratzen baldin badira lehendakaria edo, hala dagokionean, bera ordeztzen duena eta gutxienez batzordeko kideetako bi, edo beraiek ordeztzen dituztenak.

2. Batzordearen erabakiak bertaratutako gehiengo soilaren baiezko botoekin hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, lehendakariaren kalitate botoak erabakiko du.

3. Batzordearen bilkuretara bertaratutakoek, aztergaien zerrendan jasotzen diren eta haietarako bakoitzak proposatu dituzten gaiak ageri diren hurrenkeraren arabera esku hartuko dute, informazioa emango dute, era arrazoituan, batzordean aztertzeko eta eztabaidatzeko jartzen den gaiaren inguruan, eta erantzungo diete parte hartzen dutenetako bakoitzak hari buruz egiten dituen galderei. Ondoren, batzordeak egokia deritzon erabakia hartuko du.

4. Batzordean egindako deliberazioak eta emandako boto eta iritziak isilpekoak izango dira, eta batzordeko kideak behartuta egongo dira isilpekotasun hori gordetzera, hartako kide izateari utzi eta gero ere. Isilpekotasuna gordetzeko beharra ez betetzeak diziplinazko erantzukizuna ekarriko du berekin. Halaber, proposamenez eta espedienteen edukiaz ere beharrezko isilpekotasuna gorde beharko da, pertsonen intimitate eta ohore eskubidea begiratzuz.

5. Batzordearen bilkuretan hartutako erabakiak akta batean jasoko dira. Bilkura horretan idazkaritza lanetan diharduen pertsonak egingo du akta, betiere jasoaraziz nortzuk izan diren bertaratuak, ezarritako eta aztertutako aztergaien zerrenda, bilkura egin den lekua eta denbora, deliberazioen punturik garrantzitsuenak eta hartutako erabakien edukia. Batzordeko kideek boto partikularrak eman ditzakete, eta horiek bilkuraren aktari erantsiko zaizkio.

8. artikulua. Pertsona adituen eta lankideen laguntza

Aholku Batzorde Teknikoaren lehendakariak baimena eman ahal izango du haren bilkuretan, edo horietako batzuetan, bertan aztertzen diren gaietan espezializatutako pertsonak egoteko, direla Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari edo beste entitate laguntzaile batzuei eratzitako teknikariak, nahiz gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak artatzen dituzten zentroetako edozein arduradun.

Pertsona horiek, betiere, hitzarekin eta botorik gabe jardungo dute beraiek bertan egoteko arrazoi diren gaietan.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa. Foru agindu honetan xedatuta ez dagoen guztian, aplikatzekoa izango da urriaren 1eko 40/2015 Legeak (sektore publikoaren araubide juridikoaren Legea) kide anitzeko organoentzat ezarritakoa.

Bigarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 9a

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

M. ANTONIA OLABARRIETA IBARRONDO